



Zurriolako Ataria

51. alea

2019-02-22

Inauteriak datoz...

Konturatu orduko bertan ditugu inauteriak. Antolatutako ekintzen egitaraua eta informazioa [zirkular](#) honetan dituzue. Halaber, Hurrako dantzari eta ikusleen [kokapena](#) agiri honetan dituzue. Azkenik, jantzien [kostena](#) ere bertan dituzue irakurgai.



Inauteri kale-kira Soroatik Hurrara

Marxoaren 1ean HH4 eta HH5ekoek egingo duten Soroatik Hurrara bitarteko kale-jirarako musikari bila gabiltza. Badakigunez Soroako gurasoen artean soinu eta panderojole bikainak ditugula, bertatik animatzen zaituztegu parte har dezazuen. Abisua eman tutoreari eta prestatu mozorroa!



Ikastolako Bekak

Ikastolaren barne elkartasuna sustatuz, aurrean ere Zurriola Ikastola IKEk bere **bazkideen artean** duen beka sistemaren deialdia plazaratu du. Hona [deialdia](#) eta beka eskatzeko [inprimakia](#).



Ingeleseko antzezlanak - LH3-4

Azken asteetan gure ikasleek Eleanitz programaren barruan bi antzezlan desberdin burutu dituzte ingeles hutsean ikasle gazteagoen eta gurasoen aurrean. 6 saioak oso arrakastatsuak izan dira eta publikoaren txalo zaparrada jaso dute. *Congratulations!*



Batx1ekoak Eureka! Zientzia Museoa

Atzo eta gaur Batx1eko Biologiako ikasleak Eureka! Zientzia Museoa izan dira hirugarren hiruhilekoan landuko dutenaren sarrera gisa arkumearen barrunbeen disezioa egiten.



BATX1ekoak Larraitzen

Aurreko ostiralean Batx1eko ikasle talde bat Txindokiren magaleko zuhaitz parkean izan zen. Eguraldia lagun, urtxintzak bezala ibiltzeko aukera izan zuten aldaxkatik aldaxkara. Orientazio saio bat ere izan zuten; batzuk hasieran erdi galduta ibili baziren ere ez zuten iparra galdu.



GKESekoak ere irteerez gozatzen

Atzo, Lanbide heziketako ikasle talde bat eskiatzera joan zen eta gainontzekoak, aldiz, Aiako Harrira joan ziren. Eguraldi zoragarriaz eta lagun arteko giro paregabearekin era askotariko konpetentziak landu genituen bertan.



BATX2koak BORDELEN. Frantsesa hautazko gisa duten neskek asteburu-pasa egin zuten lehengo astean. Superbe!

OHARRAK / AGENDA:

- **HH5:** Unibertsitatera. Zirimola eta Xirimiri taldeak. Goizpasa. Otsailak 28.
- **Batxi1:** Zinetek, Orona Fundazioan. Ekonomiako ikasleak. Otsailak 26.
- **Batxi1-2:** "Sexu heziketa eta indarkeria matxistaren prebentzioa". Formakuntza. Martxoak 1.
- **IKASTOLAREN EGUNA:** Festa antolatzeko bilera. Otsailak 27. Ategorrietako jangelan. 17:00. Animate!
- **Tolosako inauteriak:** Nerabeak eta alkohola. Udaletxearen [oharra](#).
- **DPICS Ikerketa:** 4-8 urte bitarteko familiak. [Infoa](#).
- **Eskola Kirola:** 13. jardunaldia. [A](#) eta [B](#).
- **Batzarrak:** [Antzerki Eskola](#), [Musika Eskola](#), [Kirol Elkarte](#).
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** [Otsailak 22-24](#).

